

## **PREDIKUAK GOLDARATZ, 1833**

<http://mediateka.fonoteka.com>

Nafarroako Gobernua - Gobierno de Navarra  
Euskarabidea - Instituto Navarro del Vascuence  
Nafarroako Euskararen Mediaketa - Mediateca del Vascuence de Navarra  
<http://mediateka.fonoteka.com>

Iturria:  
Jose M. Satrustegi, 1987, Euskal testu zaharrak I, Euskaltzaindia, Iruña.  
Bertsio informatiko honen egilea:  
Elea

Nafarroako Euskararen Mediaketak egindako lanak publikoak dira eta, Jabego  
Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka,  
nahi bezala erreproduzi daitezke.

## **PREDIKUAK GOLDARATZ, 1833**

Dominica prima adventus. Año 1833

Sobre el juicio universal. Goldaraz.

Tunc videbunt filium hominis venientem in nube cum potestate magna et majestate Luc. c.  
21.

Egun daduqagu nere vioceco Cristabac Evangelioan J.C. gure Jauna vere discipuluari  
instrucioac ematen, eta aiequin batean guri egui ecin faltatu daitequen vatena, cein  
sinestacen eta confesacen duen gure Religio Catolicoac, eta da allegatu bear duela eguna  
ceñetan J.C. Juez supremoa bezala mundu gucie juzgacera etorri bear duena, baño egun au  
allegatu baño lenago, aseguracen digu aren Magestadeac, izan bear dutela siñale izugarri  
bazuec eguzquien, illarguien, izarretan, isasoan, eta criatura gucietan, Eguzquiec  
erretiratuko dituela vere argui guciec, dio San Mateoc; illarguie odoletan convertituco dela  
dio San Joanec Ceruco izarrac erorico dirala dio San Marcosec isasoa alborotatuco dela,  
eta emanen edo botaco dituela orro icaragarrieic dio San Lucasec; enfin criatura guciec dio  
Espiritu Santuec armatuco direla pecatariaren contra, pecatari gauze guciec criatu cituen  
Criadore ofenditu zuten aien contra. O cer eguna au beñerere allegatu bear ezaion bezala  
bici direnanzat. Ybillico dirade guizonac seco, color gaiz, eta consuloric gabe,  
consideracearequin ecin contatualaco gaiz aldegucietatic inguracen dituenac,

consideracearequin izan bear dutela purgatuac aien obra guciec, izac eta pensamentuac, eta aingueruetarañoco guciec dio San Juan Crisostomoc arrituco dirade, admiratuko dirade aparato bat ain audi ecustearequin eta azquena aguertuko da guizonaren semea, mundoço Redentoreoa odai argui batean, podere eta magestade audi batequin. Ebec dirade discipulu nereac esaten cien J.C. Ebec dirade señaleac juicio universalaren aicinetic etori bear dutenac, eta lance icaragarria guertacen denean ezaiteztela icaratu edo tristatu eraqui dichazute vai veguiec, eta alegra zaitezte zuen redencioa urbil delacos: alegra zaitezte cergicat allegatu den ya eguna, ceñetan atera bear duzuten mundoço cautiverioti gorpua, eta animarequin, errecibicera gorpuean eta animan premio eterno, gloria Celestial arretan zuenzat reservaturic geldituric dauquena. O justoac eta Jaungoicoaren adisquideac. O anima munduan preso viciceratenac, ucacen zaratlaric emengo gusto eta vanidadetara: O cein egun dichosoa izanen den zuenzat juicio universaleco egun ura. Somiñe eta losagarrie izanen da pecatari munduen aleguere vici dirananzat baño consuelo eta gozos betea aditu duzuten bezala munduerenzat illic vicitu denarenzat, eta solamente viciric Jaungoicoarenzat vizitu denarenzat, aleguera zaitezte zuen penetan, consolazaitezte zuen negarretan, bada azqueneco etorrico da egune guciec eternidade gozotan convertituko dena. Azqueneco acabacen du J.C. minzacen delaric esadudembezala vere discipuluequin eta aiequin batean gurequin: beguire dezazute badin picueren edo beste edocein arbolaren osto berdean ematen badiguteadicera primavera urbil dagoala; guisa berean esan ditude siñaleac ematen digute entendicera, aguiz urbil dagoala zuetatic Jaungoicoaren Erreinue, auda aguiz urbil dagoala dembora Jaungoicoarequin juatecoa erreinacera corpuz eta animarequin, eta lenago faltatuco dela posible baliz Cerue, eta lurra aren izac baño. Au da nere Cristabac Evangelioac decarrena, gucie dago redemituric aditu duzuten bezala azquen juicio universaleco egunas idea bat ematera, argatican bada izanen da gaurco nere asumptoa minzacea materi ain importantearen gañean eta onetaraco recorrituco ditugu egun izugarri arretan guertatu bear zazquigun pasoenbazuec, manifestaceco zueri; eta paraceco beguien aurrean mundu gucerier egun ura izanen dela gozo eta consuelo andicoa justoanzat eta por el contrario sentimentu andicoa pecatarienzat, eta au bear den bezala esplicaceco esca dizogun graci Divinoari Aita Eternoari, paracen diogula vitarteko Aingueruen Erregue cein saludatuco degun gucioc esaten degularic Ave Maria. Tunc bidebunt filium hominis etc.

Guizona jaiocen den instantetic, habiacen da caminacen prisaca azqueneco egun Jaungoicuec señalaturic daduquen arretara, cein Apostoluac deicen dion azqueneco eguna: Eguna da ure ceñetas minzatu nai zuelaric Joel Profetac, abiatucen motelcen eta arrazoberequin eta sustanciric emateco moduric gabe esan zuen á, á, á quia prope est dies Dominis izanen da dio egun andi bat, egun terriblea, ecin gueiago. Eguna izanen da au dio Profeta Malaquias sec labe bat bezala isiquie, izanen da dio Profeta Safoninec, asarretasunaco eguna, pena, miserie eta calamidadetaco eguna, izanen da dio Profeta Ysaias sec, illuntasunaren eta indignacioaren eguna. Au da nere Cristabac juicio universaleco eguna; au da eguna ceñec bete cituen desierto edo mendiac Anacoretas, Erreligioac personas, Eliceo Santues, eta ceñen aztuera tristeac, bete duen mundue, pecatues, eta infernue condenatues. Au da eguna ceñetan J.C. Jaungoico eta Guizona illen eta vicien juez chusena, etorri bear duena contu arcera, Adanen seme gucerier pensamenturic den chiquinetarañoco gicies. Au da eguna A ceñetan aus viurturic mundoço cuidadu andiau mii gucietan, adituco dena munduaren lau lau partetan Ainguerueren trompetaren voz izugarrie, ceñequin citacen edo deicen dituen illic dauden guciec erresuscitaturic presentatu daitezela Jaungoicoaren tribunaleco lecuen aurrean surgite mortui et venite ad judicium, iequizaitezte illac eta atozte juiciora. O voza ciertamente, eguiasqui izigarria. Obedezituco diote manau oni Ceruec, infernuec, purgatorioac eta limboac, eta entregatuco ditute aietan arquicen ciraden animac: isasoac, lurrac, eta

supulturac izolico ditute, entregatuco ditute aietan gueldituric ceuden animac San Juanec dion bezala: eta juntacen ditutelaric Aingueruec justo eta pecatarian causac Lamiza Venerabliac pecatarienac Demonioac juntatuco ditutela vadio ere, organizatuco dirade gorpuzac au da virtute Divinoas juntatuco dirade berriren verriro gorpuzeta animac, obra on eta gaiztoetan participante izanducirenac, izanditecen guisa berean premioan edo castiguan. Gueldigaitecen emen pisquebat aicina pasatu gabe, reflesiona dezagun pisco bat animac gorpuecan eguiñen duten sarreraren gañean, eta onetaraco iduridezagun eldu direla bi anima Eliza onetara bat Cerutic eta bestea Ynfernutic, beren gorpuzac seputura vietan billacera. Nola beguiratuco lico condenatuaren animac bere gorpuz miserableari, ecusiric ain ciquina, pisua, ustela eta usastua? O cer ansiec, O cer agoniec, cer descansu, eta tormentuac? da posible esanen lico da posible egon bear dudela garcela eta calabozo ciquin onetan eternidade acaberaric beñerere eztuean? O gorpuz desventuratua! Zu zara ambeste maitatucinuceden ura ambeste servitu ciñuceden eta ceñengatic galduen glorie, ceñetaraco izanduninzan criatua? Madaricatuac izan daiteza emanitien gustoac, bada ain garestiec atera zazquit. Maradicatue izan dedilla ongarrisco zaque, bada irigustoia emateagati eznioan eman Jaungoicoari, eta arquicen nauc condenatua. Madaricatuac izan dedilla anima errespondelezaque gorpuzac, madaricatuac izanadiela imduquegularic arrazobearen frenoaquin emen eguin nai izandu, zembat obe izanenuen lastimariq, compasioriq ez iduquicea, orduen, orain ecin esplicatu ditezquen tormento aietara ioatea baño. O seculen ezagutu ezpaindut siquiera. Ucinazac nera ar obequin lurrean, eta izuliadi infernuen engoan toquire. Modu onetan izanen dute naigabe eta repugnanci andibat gorpuzac eta animac elcarrequin juntacea, baño Demonioac, Jaungoicoaren justicico ministroac berac esanen diote modu onetan, elcarren lagunac izandu ciñeten gustotan atozte penetanere lagunac izatera. Ebec izanen dirade iz dulceac cenequin contestatuco dituten Demonioac bicitu ciraden demboran beren aragia beste amanteric, beste Jaungoicoric izandu ezuten aiec. Nor ezta bada arricen onetan pensacean bacarric nere Cristau eta adizale maiteac? arquicen oteda gure artean desdichaturen bat suertean izan bear duena, vide onetatic pasatu vear duena?. Ojala ezpalice, baño zu juramentuguilla zu vengativoa, zu desonesto eta lujuriosoa, zu emaztequi vanoa munduco pompa eta vanidadetan, bestetan pensacen eztuzuna, zuc malicies pecatuec confesioan ucacen dituzuna, zuc pecatari andiezala publicamente, otorcen duyuna, eta deusetas ere, cere pecatus penitencio eguiteco baño cuidado guchiagoric eztauquezuna ¿Nola izanen da posible nai dezazun esperimentacea esai infernal alien残酷 eta asarretasuna? Aizu desdichatua baldin demborarequin ez padituzu erremediacen zure escesoac eta desordenac. Ai zure miserablea baldin ezpadetu eguiten negar eguiasqui aietas orain dembora dezunean orduen egonen zara errabies beteric, oroicen cerandenean emen cegoala pulpitu unetatic esanizun, au confesonario, ceñengandic igas eguiten ciñuen eriozatic bezala, eta ecusten dezunean beste aniz aprobechatu cirela sermon oretas, eta zuc eciñuela aprovechatu nai izandu, cer errabie. Goacen orain al contrario cer gozorequin eztio beguiratuco bienabenturatuaren animac bere gorpuz dichosoari? Cer enorabuena ain dulceec eztira izanen, eztitio emanen aren resurreccioco eta gloriaco dembora allegatu celacos? O nere lagun ona, esanen du animac ecustearequin bere gorpuzeta ain ederra, ain alegrea, eta arguia,edo agradablea; atoz nere adisquide fiela, atoz, eta eman dizaiuzu besarca eta eternidade gucion dembora gucion demboretan izan bear duena. Bedicatua izan zaitezela cergati sufritu cenduen barueguna, disciplina, pobreza, afilioac, eta beste asco mortificacio vicituciñen demboran. Bedicatua izan zaitezela, bada baterere erreparo eta beldurric confesaceco araco pecatu isusi ura ceñetan eroriciñen miserable eta flacoa bezala, laster acabatu cen zure orduco beldurra eta losa, eta ezta acabatuco beñerere ura confesatu ciñuelaco gozoa. Bedicatua izan dedilla Eliza onetara etorri ciñen ordua sermona adiceagatic, Predicariari escuchaceagatic cein igorri zuen Jaungoicoac nere

erremedioraco ori cegoan pulpitura cenetaic, aritu ninduen Jaungoicoac bere eguiquin, au confesonarioa non izandu nincen absolvitua nere pecatuetatic, au cen venerablea, ceñetan comecatunincen aniz aldiz erreverencirc den andienarequin. Ea esanendio animac gorpuzari, Ea atoz, nere estimatue nere maitea, atoz participante izatera araco glori eder arretan ceñen irabazteco lagunduco ciñudan: eman dizquidazu escu oriec, cenequin erancicenion sombrelua zu ofenditu cinucenari, eman dizedazquizu escu garbi eta liberalidade andierequin limosnac eman ciñucen oriec: eman dizquidazu escu jocura eta uquiera ciquinetara izuli eciren oriec: eman dizquidazu bada paratuco ditut diamanteac berac baño ederragoac. Eman dizquidazu begui mundo co ciquinqueriec ez ecusteagatic ichiciraden oriec. Eman dizarazu ago juramentu, maldicio, eta lagun progimoarenzat gaizqui esateco idiqui ecenori, eman dizarazu ago ez chocarrarietan eta iz alperretan ocupatu (e)cen ago ori; baicican Jaungoicoa alabacen, eta bedicacen empleatu cen ori emandizquirazu emandizquirazu zure miembro guciec eta guciec ecusico dituzu eguzquie bera baño arguiegocoac. O mortificacio dichosoac, O penitenci felicidaderic den andianecoac. Eztaquit nere cristabac nola ezten iñor ebek imitacen dituenic, ambeste dichetera allegaceagatic. Aditu duzute resurrecio generaleco demboran pecatariecz izanen duen pena, eta igualmente anima justoac izanen duen gustoa eta contentue. Acabaturic persona gucien resurrecioa edo erresucitacea, joanen dirade guciec Josefetaco Vallera cein baita juicioco toquia Profeta Joelec esan zuen bezala, eta an aguertuko da J.C. Jaungoico eta guizona Aingueru gucien gandic acompañatua an verean egonen da prevenituric airean odaiesco Trono magestade andicobat, eta allegaturic arera gure Redentorea soberanoa, paratuco du bere tribunalea ecin chusenagocoa mundu gucie juzgaceco gure Redentorearen aldamanean egonen da bere ama Maria Santsima glori ecin andiagocoa onen aldamanean beste trono bat beste Santu gucienzat aren Divina Magestadearen pasoac seguitu citutenanzat honra dignidadeac eta interesac abandonatu cituten aienzat. O nere Jaungoicoa, nor izanen da capaz esplicaceco pecatariecz orduen iduquico duten pena, ecusiric munduen pobre vici ciradenac, despreciaturic acaso vici ciradenac trono magestade andico arretan, eta emen honra andien artean vicitu ciraden pecatariecz osticoca eta lurra bera baño azpiago sarturic ecustean. O cein losaturic egonen diraden orduan pecatari sobervioc, eta por el contrario cein consuelo eta gozo andias beteric anima santuac mundu gucieren aurrean ain distinguituric ecusten diradenean, animo ona humillac, anima zaitezte zuen tristura eta neque penosoan artean, bada allegatuco zaizute eguna, ceñetan eduquico tuzuten zuen oinpean, orain manacen dizuten Erregue eta gañeracoac ezpalinbadire zuec bezala eta J.C. manacen duen becala humillac. Paraturic modu onetan Teatro izugarri ura manatuco die Juez Divinoac bere Ainguerueri beresdichatela gaitzoac onen artetic. O bereste losagarriena. Aldevatera joanen da garie, eta vestera ciquinac, aldevatera arrai onac eta vestera gaitzoac. Orain arquicen dirade Elicen eta munduen onac eta guciec elcarrequin, baño egun arretan ioanen da bacoiza bere lecura ongi vicitudana escuñetaco aldera, eta gaizqui vicitudena ezquerretaco aldera. Cer izanen da ecustea San Efrenoc dion bezala cer izanen da ecustea apartacea Obispoa Obispoagan, Sacerdotea Sacerdoteagandic? Cer izanen da ecustea apartacen Erreguec Erregue gandic, Andreac senarrac gandic, humeac gurasoagandic, gurasoac umeagandic eta doacila bazuec escuñetaco aldera eta besteac ezquerretacora, bazuec Cerura eta besteac Ynfernura. O cer pena izanen duten orduen pecatariecz. O nola lastimatuco diraden orduen araco pecatari munduen vicitu ciraden artean besteric deustaneduquitu ezuten aiec, Jaungoicoaren videtati cebilanari, munduraco enteramente illic vici ciren aieri eta solamente Jaungoicoarenzat viciric ceuden aieri, mundo diversiotatic apartaturic vici ciraden aieri; hipoqrita, embustero eta ridiculotaco zeuquiten aiec ecusten ditutenean Jaungoicoaren semean numeroan arquicen diradela cer esanen dute? guero bazuc izandu quiñucean aiec ituen iaquinsunac. O cein eguiascoa cen aiec cerabilten videa glori eterno suerte ona

erdisteco, orain gozacen duten bezala. O nola gure gustoac, placerac izandu ciraden principio Demonioaren mendeau erorceco; onela lastimatuco dirade desdichatu asco, baño probechurican gabe. Baño por el contrario ¿cer izanen da justoac separacio edo berescunza ura ecusita artuco dutena? Cer gozo erreccibituko dute mundu onetan humildadean viciu diradela premioan ecusten dutenean Aingueruac berac colocacen eta paracen ditutela Jaungoicoaren escuñetaco aldean. O bedicatuac izan daitezela onelaco humillacio dignidade bat ain andia erdesicen dutenac. Eta eguié esan bear badut betecen naiz losa andibates bildur andi bates consideracean badirela guizonac separacio edo berescunza ain balioso eta honrosoau galaco arriesgo claroan daudela ezaguturic, veren genio altivo eta soberbia garaitu nai eztutenac eta mundu desdichatu onetaco gustobat bacarrari ere barcatu nai eztiotenac. Disponituric edo iarriric guciec bacoice bere toquien leituco dirade silencio edo isiltasun den andienaren artean guizon gucien Adanen gandic asi eta azquena jaio cen denaren ganaco causac. Ydiquico dirade dio San Juanec libru conciencioarenac vici gucien ichiric egondu ciradenac, au da dio Aingueruec Sto. Tomasec, emanen diola Jaungoicoac iaquinduri bat bacoizari ceñequin ecusico dituen bere eta besteren concincico pecatuec, an ecusico dirade besteren concincico eta bereco obra on orduartaraco estaliric egondu ciradenac, an aguertuko dituela Jaungoicoac dio Profeta Davidec, justoan obra on gucie honraceutco mundu gucieren aurrean an aguertuko dituela aien baruegunac, penitencie, limosnac, asteragunetaco meza Santue enzuteac eta en fin beste obra on guciec. O cer poza, O cer gozoa, O cer alegría izanen den justoanzat. Bedicatuac esanen dute, Bedicatuac gure penitencie, gure limosnac, gure baruegunac bedicatuac gure mortificacioac, bedicatuac enfin beste obra on guciec. Galde dizozula bestela San Lorenzori vere parrila eta suegatic, San Clementeri ogaita zorci urte tormentuetan pasatu cituen onengatic, eta esanen dizute ¿Cer tormentu parrila eta su? Ezta ya memoriric pena ain andiaienic aiengatic irabaci quiñuen glorie ederra ecustearequin. Esan dezala San Hilarionec ea cer eguiñ diraden iruetan ogaita amarurteco vicimodu penitente eta erretiratua ura, esan dezala San Simeonec ea non diraden lautan ogaiturte, eta ebetati berrogaita amar pillare baten gañean tempestade guciec erreccibicen cituela pasatu cituen urte aiec, eta guciec esanen dizue cer penitenci cer mortificado eta cer tempestade? ya ezta arquicen eben memoriric deus ecen izandu au gucie glori eterno gozacen degun onequin comparaturic, pena, tormentu eta oñece aiec pasatu ciraden instante batean baño gloriau ezta pasatuco beñerere, cergatic iraun bear duen eternidade acaberaric eztuen gucien. Baño al contrario cer desonra, cer confusioa, cer losa ezta izanen gaiztoanzat gucien aurrean agueren diradenean aien iz guciec, obras, eta pensamentuec.? An aguertuko eta ecusico dirade baztarretan eta illumabetan eguiñ ciraden desonestidadeac, an aguertuko dirade pecatu confesioan losas uci ciradenac, an ecusico dirade adisquide falsoac, traicio estalien eguiñac, guezurrac eta venganzac. O nola deseatuco duten dio San Efrenec, O nola deseatuco duten orduen gaiztoac lurrac irichi baliza ez ecusteagatic lance losagarri arretan. Ain andia izanen de aien ondoko losa dio San Basilioc, ece pena chiquiagocoa idurituco baizaie infernuetan egotea aien pecatuec manifestacea baño eta eguié esateco baldin orain berean manifestatuko edo aguertuko balirade presentean arquicen gueradenetaco baten pecatuec ocultoac, asqui izanen licique ill aic erorceco, cer izanen dabada manifestacea mundu gucieren Aingueru eta gucien aurrean? O lance ciertamente izigarrie lancetan den icigarriena. Nor izanen da suerte eta lance ain triste onetatic igas eguiteagatic gurucearequin bertatic besarcatua eztena bere pecatues negar eguiten, deustan ere bestetan pensatu gabe? Bada norbait onetara ucacen denic nere auditorio onetan? O eztezala permititu Ceruec, eztezala permititu Jaungoicoaren ontasunac allegatu dadien ambesteráno pecatarien ichustasuna. Eguiñic conciencien publicacioa, eta por consiguiente paraturic guciec ecusi dichaqueten guisan Vacoicec vician demboran eguiñ cituen obra on eta gaiztoac pesatuco da gure Redentorea setenci mereciduena ematera. O nere Jaungoicoa eta

pasoau, nola egonen dirade orduen pecatari miserableac setenci azquenecoaren esperacen salvacioco esperanzaric izanen eztuenaren esperacen? O cein pensamentu somiñac izanen dirade aienac ecusten dutenean Jaungoicoac usacen duela aiequin bere justici rigurosoas, eta ez misericordies? Eztituela izulcen Veguiac aiengatic isurizuen odol precioso arreta, baicican bere ire edo asarretasunera. Eztaque arquitu gauza izugarrigorik dio San Bernardoc, baño erremediorican gabe guertatu bear da eta erremediorican gabe sentenciaturucodu gure Redemptoreac, eta onetaraco izulico ditu beguiec J.C. Juez supremoac escañitaco alde arpegui veraz eta alegre batequin, eta voza aguiz tierno eta sucor vatequin esanen die dulzura andi batequin venite venedictis Patris mei Atozte nere aitagandic bedicatuac, atozte glori eternoa (go)zacera, mundueren principiotic asieta preventuric dagoana. O cer sentencie au. O cer sentenci ain gustosoa, poza eta dulzure bera ere acabatuco eztenas betea. Atozte gozacera, eta eztezazutela izan damuric padecitu uzutenas, atozte zuen baruegunean, zuen cilicio zuen penitenci eta disciplinen prenda vilcera, atozte trabajuetatic descansura, batallatic coronara, negarretatic gozo eta (...) beñerere acabatuco ez diradenetara, atozte bada acabatu ciraden trabajuar, oñaceac, desprecioac, pecatu equiteco peligroac, eta galcecoac, atozte nere Aitagandic bedicatuac atozte. O sentenci trabajuric eta penitenciric den andienac mereciditzuna. ¿Norc au adiceagatic eztitu despreciacen munduco gusto instanteco acabacen diradenac? Norc eztitu sacrificatuco eta mortificatuco bere pasioneac, vere araguiec, sugetacen ditularic crueladeric den andienarequin? Deus ere elicique ematea mille vici adiceagatic J.C. agotic sentenci favorecoau. O cein suavidade andien resonatuco duen justoan artean sentenci onec dio Davidec, alabacen dutelaric gustoac felicidade edo dicha eternoa, an artuco dute posesioa glorie eternoco erreynuas, erreynu mundu onetacoa eztenas, baicican Jaungoicoarenas, erreynue, dicha eta alegri gicies beteas. Baño O pecatari, miserablean desgracie. Adi dezazute Cristabac penarequin bada ere aien desdicha. Aditu ondoan miserable aiec beren tormentu guciagotaco San Bernardoc dion bezala justoan sentencie, eta ecusi igualmente beren gustos, beren borondates, eta verac ala nai izanic felicidade edo ongi izate beticoa, izulico da J.C. gure Jauna aien aldera aurpegui losagarri batequin, ira asarretasun eta indignacios beteric, eta voza izigarri batequin esanen die: discedite a me maladicti in ignem eternum apartazaitezte neregandic madaricatuac, su eterno Luzvel eta aren banderac seguicen ditutenanzat preventuric dagoan arretara: apartazaitezte neregandic vainaiz zuen Jaungoicoa seculen gueiago ez ecusteco apartazaitezte neregandic vainaiz zuen ontasun gicie gueiago ez gozaceco: apartazaitezte madaricatuac, nere azqueneco fin arretatic ez conseguiceco beñere: apartazaitezte madaricatuac nere adisquidetasunetic, nelaguntasunatic: nere Erreñutic, nere ondasunetatic, nere erregalotatic: apartazaitezte neregandic madaricatuac orain, veti eta guisa gucietan madaricatuac, bada eciñuten nai izandu nere bendicioa, Madaricatuac izan zaitezuela animan, madaricatuac corpuzean, madaricatuac potencietan, madaricatuac egon bear dezuen toquien iraun bear duen eternidadean, eta madaricatuac izan bear dezuen compañien. Zuzte Madaricatuac baño nora? su eternora, eternora, eternora dio da lo mismo nola erratea ez milla eta milloncaco urtetaco, baicican beti beti esperanzaric eta alivioric gabe egoteco. O ner Jaungoicoa o eta nola erituko dituen sentenci revocacionic eztuen aren pecatari miserableac. O cer carrasiec ateraco dituten au adicearequin. O cer pena. O cer pesadumbrea. O cer errabie eta desesperacioa eduquico dezuen zure contra cergatic eguiñiñuen pecatu, eta Jaungoicoaren contra cergatic ala castigacen zaituen. Au izanen da zere burue madaricacea, an madaricatuco dituzu zure gurasoac, zure gustoac: an Madaricatuco dezu Amac Maria Santisima, Juez Soberanoaren amaden bezala: an finalmente madaricatuco dezu blasfemiric den izigarrienarequin Juez vetico condenacen zaituen ura. O pecatari miserablea, baldin orain ecin acuditu badezu sentenci ain cruel ain losatu gabe, cer izanen da experimentacera allegacen zaranean? Emen mutucen da nere mingaña eta illuncen da

nere entendimentue, cergatic ezten posible esplicacea cein icigarrie den pena ura eta condenatuec berac ere eztirade capaz, pena au bear bezala esplicaceco. Esan dizarazu bada orain Cristaba uste duzu aditu duzun gucie zu engañaceco pensatu dudan contu bat besteric eztela, edo siñestacen dezu ecin faltatu daitezquen Cristandadeco eguiet diradela? Siñestaceti dezu fede ecin faltatu daitezquenarequin onela guertatu bear duela?. Siñestacen dezu cerorrec ecusi ta aurquitu bear dezula juicio onetan? Siñestacen dezu esperimentatu bear dezula arretan justoan gozoa; edo pecatarien penac orain aditu duzun bezala? Ezta medioric pecatarie edo servitu bear dizu gozo anditaco egun losagarriarrec, edo pena tormentutaco edo eresucitatu bear dezu gloriosoa gorpuz eta animan, edo pesadumbre eta tristezaz betea, edo aditu beazu sentenci bendicio eternocoa gustoric den andienarequin, edo por el contrario condenacio sentimenturic den gogorenarequin, gauza fuertea da baño eztago medioric. Izanican bada au zure feda, zure siñestamentue, nola vici cerade ain azturic azote ain cruel onetas, Nola entregacen zara gueiago erreparoric gabe juramentu eta blasfemi arietara? Nola eztiez paracen frenoa zure sentidoari, zuc errien ematen dezun escandaloari particularmente amorio torpe desonesto edo lujuriosoa dezun personaren echera iuateari, eta ebec nola dabilcen iaquinic erremedioric ezpara orri, antes bien gusto andiarequin ametitu ori? Zure desdichatua, zure miserablea ezpalin badituzu idiquicen beguiec, escarmentuec idiquiaci baño lenago; zure desdichatua, bada ezta beste arbitrioric izanen betico condenacea baicic Noiz arteraño bada sorturic egon bear dezu Jaungoicoaren avisotara? Da posible ezaituela gueiago muguiaci eta beraztu bear trajedi an losagarriarrec? da posible eztezula caso gueiago eguin bear eternidade gucico bendicio artas edo condenacioas? Betico Satanasen eta bere Aingueruen aldamanera, edo J.C. eta bere Santuenera: Betico Jaungoicoarequin eta Maria Santisimarequin, edo betico Demonio eta bere lagunequin? Nor ezta arricen adicearequin bacarriq? Cer dau nere Cristau maiteac? Allegatu bear duela onelaco lancea gurezat? Norc bada vici naidu mundu desdichatu onetan? Norc eztitu despreciacen bertatic emengo gustoac, diversioac, eraquerieac eta pasatiempoac? Nor ezta bertatic armatuco guruce santu batequin? Ea bada Cristabac izuli gaitecen eguesqui Jaungoicoarengana, naibalinbadegu aditu setenci favorescoa lance terrible arretan, izuligaitecen siñesqui eta artu dezagun damutasun eta urricalmentu andi bat aren Divina Magestadea ofendituas, eben erdesi dezagun glori eterno eta betico ura cein baita deseacen dizutadana.

## II

Dominica 1. Quadragesime

Goldaraz año 1834.

Ductus est Jesus in desertum á Spiritu Santo ut tentaretur a Diabulo. Math. Cap. 4.

Gauza maravillosoa da Cigueña deicenden egazti batei guertacen zaiona. Naidituenean egazti onec atera humeac paracen du ezquildorrean gañean, adicen ditu ezquillec soñacen alegrí andi batequin festividade edo Jai andirembat eldudenean adicen ditu soñacen tristeza ecin andiagocoarequin norbait ilcen denean, eta finalmente adicen ditu soñacen aritu andierequin tempestade andirembat eldudenean, baño beti dago bere cabien baterere muguitucen eztela; eztute pasarazten lecu batetic bestera ez soñu alegreac, eta ez tristeac eta ain guti aroitu andi adicen dituenac.

Au bera guertacen zaiote egungo egunean Cristau gueienari. Adicen dituzte maiz asqui confesorean, eta predicadorean oiu alegreac ia dela confesonarioan, ia dela pulpituan,

esplicacen ditutenean Jaungoicoaren promesa eta misericordi andiac, pecatutic sinesqui apartacea naidutenendaco: empeñaturic dague bada bere ice, eztioi iñoriere faltatuco bere misericordie, noneta bear den bezala escacen dion. Nai duzue nere Cristabac erdesi Jaungoicoarengandic misericordie? Atera zaitezte pecatutic, eguiten duzutelaric propositu sinesco bat, ez gueiago pacatuen erorceco, badaquizute bada Jaun soberanoac diola pecatutic atera eta berris pecature izulcen dena, eztela Ceruetaco Reinuraco ona, nemo mitens manum ad aratrum et respiciens retro, aptus est Regno Dei. O cein izigarrie den sentenci terribleau. Adicen ditute dembora ebetan oiu tristeac esplicacen direnean infernuco penac, araco edo onela personaren anima condenatu cela, cergatic pecatuen cegoalaric arrapatu anbeste guertatuco zaizu nere Cristau pecatutic atera nai ditute finalmente arroitu andiac misioneac eguiten edo arquicen cirate aniz edo gueienac zeren pecatuetan; eta baterere muguicen eceratela ez soñu alegreac, ez tristeac, arroitu andiac pasarazten zaituzte pecatutic graciera. Adituzazte noble onetan arquicen ceradetenac orain baño lenago oiu alegreac, eta finalmente genero gucietatic, baño acaso arquicen ciradete ceren cabietan. Posible da Jaun Divinoa arquidaitequen Cristaban artean ichutasun. ¿O nor eguna licequen nere beguiac bi iturri abundante edo abarasac negar eguiteco gabas eta egunas onembeste ichutasum eta desdicharen gañean cion S. Pabloc. quis dabit capiti meo aquam et oculis meis fontem lacrimarum, et flebo die ac nocte Cer consuelorequin abitu bear dut garicima santu onetan sermonacen edo predicacen? Baño eztago Jaun Soberanoa beroren escuetan, ostinatu edo vioz gogor eta beñereere pecatutic atera gabe dauden oie converticeco? Bai por cierto: ea bada convertitu viche, iz eguna bizote viocetara guztiec nai dute bada berorren ize aditu, eta pecatutic atera; Loquere Domine ad cor quia audivunt servi tui: convertiviche erraten dut, berris ere minza bequiole nere aita amorosoa favoreau escacen dizut, onetaraco paracen ditut interesero edo medianero zure ama Marie Santissime, Aingueruen Erregua eta pecatari gucion amari alcanza dezan zure gandic graciau, eta au ezpadirazu conceditu nai eman dezarazu siquiera gracie desempeñaceco garaicema Santu onetan ongui nere desea dutena, ceimbaite predicacea Jaungoicoaren iza Ceruco videa eta nere auditori noble onetan arquicen diradenari berris juatea bidea barrena Ceruco gloriaren gozacera Ave Maria.

Ductusest Jesus in desertum a spiritu etc. Arquidezaten Cristabac Ceruco videa. Arquidezaten Cristabac Ceruco videa erraztasun andigoarequin ateracen da egungo egunean J.C. Magestadea eracustera botacen dituelaric lurrera ifernuco vanderac eta quencen ditularic Demoniori indar guciec umus princeps huius mundi ejicitur foras. Ezagucen zuen ongui Jaun Soberanoac Ceruco videa barrena ioan bear dutenac trabajatu bear dutela aniz, castigacen dutelaric ongui beren gorpuza eta guerra eguiten diotelaric beren viozari eta pecatueri. regnum celorum vim patitur; baño nor izanen da vide neqoso eta trabajoso au barrena ioanen ezdene ecusten duelaric doaiela aurrera Jesusen magestadea? Cein soldadu izanen da bere esaieri batalle edo guerra ematera ioanen eztena, ecusten duelaric aurrera doaiela bere Capitana? Eliceque aborrecitua edo despreciatua izanen gucien artean acera izulcen licequen soldadua? bai por cierto. Eta orañican gueiago bicieren penadu onelaco soldadu onrra gabeac Ai mundu onetako Erregueac guardacen baditure guisa onetan beren legueac cer izanen da Ceruco eta lurreco Erregueren leguean contra faltacen dutenas? Cein aborrecitu izanenda Cristoren magestadeagandic, eta Ceruco cortesanoangandic Cristo Capitan valeroso oni seguicen ez dionac. Pensa bezan ori bacoizac. Ea bada nere Cristabac seguidizagun gueren Redentore eta Aitari; baño nora seguitu bear diogu? egungu evangelioac eracustendigu: in desertum desiertora Certara? Ecustera nola peleacen den Demonioaren contra, eta icustera nola garaicen duen Batalleremba eman bear denean lembicico eguiteco gauza da lecuric bentajosoena eta onena billacea eta arega J.C. magestade capitán sabioac, eta usic eguna eztezaquenac

bezala, billatu lecuric onena cein baita desiertoa, eta soledadea demonioa garaiceco: Ductus est Jesus in desertum. Mundue, Demonioa, eta arenguie dirade gure esaic andienac eta gogorrenac, baño irurac gueldituciraden garaituric egungo egunean Jesusen magestadeagandic. Garaituzuen mundue desierto izigarri batera ioatearequin: Ductus est in desertum. Garaitu zuen arague castigacen zuelaric bere corpuz delicate desiertoco lur gogorraren gañean, cein elegituzuen bere oacetaco eta barucen celaric berrogei egun beren gabequin. Et cum jejunasset quadragimta Diebus et quadraginta noctibus. Garaitu zuen Demonioa batalle eman cion gucietan . Lendabikico aldien tentatu cion Jesusen magestadeari guleren vicioarequin, erraten ciolaric convertichela desiertoco arriec oguitan. dic ut lapides isti panes fiant. O cer tentacioa goseac dagoan batendaco Jesusen majestadea cegoan bezala. Baño cereguin zuen gure capitán balerosoac botazuen paseacera demonioa erraten ciolaric ecela guizona oguierequin bici, baicican Jaungoicoaren agotic eldu dan izequin, eta conversacio aquin: non in solo pane vivit homo sed in omni bervo quod procedit de ore Dei. O gule infamea, atrebitue eta madaricatue, anima desdichatuac sacrilegios, eta pecatues veteric infernuco galdetara botacen tuzuna. Au da gure lendabikico Aitari cein baitirade Adan eta Eva venenoa eman ciotena gularen bicioagatic, betezuen mundue trabajes, enfermedades eta eriozas. in dolore, paries filios, et in ssudore vultus tui besceris panem. Au da bere gustoac eguiteagatic botacen dituena lurrera virtute guciec, eta anima infernietara. Au da anima desdichatuec vicios (torpes) betecen dituena, eta desonestidadeco suerequin erreken dituena San Lorenzo Justinianoc esplicacen du vicio au guise onetan admiracio andibatequin: O gula gula, lujurieren su infernal, ceñen galda da sobervie, ceñen chinguie edo prasa dirade iz desonestoac, ceñen equea da infamie, ceñen ause da probeza, ceñen lecue edo paraderoa da infernue, eta acabacen du Santu onec berac testoa erraten duelaric acabatu bedigule eta acabatuco dire vicio abec guciec. Dignis infernalis luxurie cuyus flama supervia, cuyus scintile praba coloquia cuyus fumus infamia cuyus cinis inopia cuyus finis gehena: cohibe gulam et hec omnia cesabunt. Ezta icican asco predicaceco vicio infernuco onec animatan eguiten dituen dañuec. O vicio madaricatua, cer aumentoa edo irabacie deraman dembora ebetan; cristau ebetan, eta particularmente erri onetan, bada apenas ecusten da beste gauzaric ala gaztietan, nola zar ejemploa eman bear dutenetan gula baicic, ordiquerie baicic, eta lujurie, direla iz desonesto edo amorosoac, direla deseo edo pensamentu consentituac, edo direla obrasco pecatu larriez bicio onen contra disponituric dauzqui J.C. magestadeac baru egunec, baru egunac sugetacen edo lurrera botacen ditu bicio guztiec Eliza ama Santuec garizemeco prefacioan contacen duen bezala: corporali jejunio vicia comprimis baru egunac goracen edo alchacen du Jaungoicoagana gure espiritue eta entendimentue: menten elevas baru egunaren medioserdeisten dirade Jaun Soberanoagandic virtuteac eta premioac, virtutem largivis et premia. eta finalmente baru egunetatic ateracen dirade pensamentu garbiec, borondate onac, eta conseju santuec, de jejunio procedunt caste cogitationes rationabiles voluntates et salubria consilia. Baño cer importacen du Jauna cer importacen du atera zaitecen aurrean capitán valerosoa, Ceruco videra eracustera lurrean lo pisque bat eguiten duzularic, berrogai egunas eta gabas barucen cerelaric: quadraginta diebus et quadraginta noctibus: Ezbalinbada iñor arquicen bidean barrena joan nai duenic? Escuses edo aicuiques beteric arquicen da mundue ez baruceco baño zure tribunalean Jaun Divinoa ez dute baliatzen aicequie. Bazuec escusecen dire bidean joan bear dutela, erratearequin, adidezazu cristaba egun gucien edo gueien partean joan bearbadezu oñes, escusu baliatuco dizu, baño bi edo iru ordu besteric ioan bear ezpadetu ezaizu baliatuco, beste bazuec escusecen dirade trabajatu bear dutela erretearequin, baño entenditu bear dezu trabajatu bear badezu baian, aizurrean, aizcoran iguiten edo beste onelaco penosorembatean, orduen baliatuco zaizu escusa, au da ezaude obligaturic barucera, baño gañeracoan bai, obligacen zaitu beste bazuec escusacen dirade erratearequin, bataio batean, eztai batean, edo entierro batean, edo

beste nolabaiteco funcionean allegatuzela, eta ezela posible barucea, eta cer motivo zinuen bada ezbaruceco? Jauna cer motibo, nic eznuen beste motiboric, baicican urtean bein allegatu bear onelaco ocasiotan, au da tripa ongi betececo moduan, eta sentimentue eguiten ciraden ura galcea, eta ezaio iduri berorri motiboric asqui badela au? Ez por cierto eta pecatu mortala eginden dute motibo ebeta(n) baruceco uzten duen guztiak eta condenatuco dire ezpalinbadirade aies escusacen eta arrepentien. Bigarren tentacioa, presentacion Demonioac Jesusen magestadeari esperanza bano batequin erraten ciolaric, botazac ere burue leku edo mendi altu orretatic bera, eta Jaungoicoaren semea baldin baiaiz, Aingueruec libratuko aute, eztezaquen minican artu: si tu filius Dei es, mite te deorsum, scriptum et enim, quoniam angelis suis mandavit de te, et custodiant te in omnibus viistuis.

O cebat anima desdichatu arquicen diraden infernuco galdedetan, guise onetaco tentacioembatengatic. Bazueri esaten diola enemigo falso onec, ebasi edo ostu dezatela onelaco edo alaco gauza, eginden dutela errestitucioa izaten dutenean. Beste bazueri erraten diote egun dichatela beren gorpuzaren gustoac, eta penitencie eginden dutela, baño cer pagatu izanen dute onelaco gorpuz gaiztoac David profetac dion bezala: mundu onetan vici diraden arteraño paratuco ditiote Demonioac lazoa lazoaren gañean eztaitecen atera beren gusto, pecatu, vicio eta maldadetatic, eta beste munduan. regalatuec, edo premiatuec izanen dirade infernuco suerequin eta galda eta tormentu ezin izigarriegocoquin, cergatic egun zuten Demonioac, manacen ciotena cergatic eman cioten Demonioari gustoa. pluet super pecatores laqueos ignis et sulfur et spiritus procelarum, pars calicis eorum. Zoaz tabernara edo beste echeembatera guizon ichutue eta gastatu dichazu ordiquerien, eta galdu dichazu ioquen cere acienda edo ondasunac, eta etorzen ceranean cere echera, arizaitea cere familierequin occasioan, eta Jaungoicoaren ofensan beguiredezazu ongi eta consideradezazu cer pagu izanen dezun gutiernuste dezunean, infernuco sue galda, azufrea, plomue, piquea, eta Demonioren compagnie. ignis et sulfur, et spiritus procelarum pars calicis eorum.

Beste bazueri erranen diote conservatu edo egon daitecela beti desonestadeara dela pensamentusco, dela obrasco siquiera torpesco pecatuetan eta amorio edo amancebamentuen, Jaungoicoa dela misericordiosoa, eztuela nai iñor condenatu dedien emanen dutela dembora confesio on bat eguiteco eta pecatu vicio eta maldade desonesto edo castidadearen contraco oietatic ateraceco, eta cer guertacen da? lastima erran daitequen andiena cer guertacen da diot berrisere? fiaturic anima desgraciatu desdichatu, eta miserable ebek esperanza bano onetan, gutien uste dutenean, gucienna descuidaturic daudenean, arrapacen ditu eriozac, eta arquicen du infernua tormentu icaragarri aien artean. Azqueneco tentacioa eman cion Demonioac Jesusen Magestadeari erraten ciolaric emanen citiola munduko erreinu eta ondasun gucieak baldin belauriko iarriric adoracen bazuen. hec omnia dabo tibi si procidens adoraberis me. cenbat aldies galde eguiten dizut nic Cristau neri adicen zaudena cenbat aldis adoratu duzu Demonioa? Adoratu dezu por ventura munduko erreinu eta ondasun ofrecio edo aguindutizun aiengatic? oiengatican ere cerbait bai, baño gueiago eta gueiago adoratu dezu eta adoracen dezu, zere gorpuz ciquin orri, gusto ciquin bat emateagatic. Acabatuco orain contacera noaien ejernploarequin. Joan cizaion edo aguertu cizaion aingueru bat monge edo religioso Jaungoicoaren servizoan cegoan bati, eta erraten ciolaric segui cizola, eramanzuen conventu batera. Claustroan sarcean ecusicituen ulien figuren ecin contatuala Demonio, ioan cen corura eta gañeraco conventuec cituen lecura, eta Claustroan bezala arquitu cituen leku gucietan, baño considerazazue zebilcela Demonioac beñerere guelditu gabe. Conventu artatic eraman zuen Aingueruec monge ura eta atarien edo portalean sarcean erreparatu zuen cegoala Demonio

bat, baño gueldi gueldie, admiraturic edo arrituric erran cion Aingueruen religioso edo monge arrec, ea cergati cebilcen ambeste Demonio eta ain diligenci andiequin conventuen, eta cuidadoan bat bacarra eta ur(a) guelderic edo eguitecoric gabe edo lanican gabe? Erresponditu cion conventuen fraile guciec ceuden oracioan eta Jaungoicoaren servicen, baño Ciudadean guztiec edo gueienac ceudela Demonioaren servizuan, eta motibo onengatic asqui cela bat. Cembañ Demonio asquico ote dire edo arquituco ote dirade erri onetan aniz ala bat bacarra? bat arquicen da eta ura guelderic. unum solum demonium sed otiosum, eta ezta bota bear nere Cristabac batau bacarra? iduricen zait ezez emen arquicen diran escandalu eta desordenaquin, maldade eta vicioaquin, ezta votacen ez soñuc danza, siquiera torpe eta obrasco pecatu aietatic elduderenaquin baicican orain humildadearequin eta errezoarequin eta guero tentacera eldu direnean erran dizogun Jaun Soberanoac erran cionn erran cion bezala: goaia Satanas ezaquela tentatu ere Jauna eta Jaun goicoa. Vade Satanas Dominum tuum adorabis, goaie Satanas eztezaquela tentatu Jaungoicoaren siervo au: Considera zazu Cristaba cein erremedio erraza eracusten dizun Jaungoicoac demonioaren garaiceco, baño zuc despreciacen duzu erremedio au cere pasioneari gustoa emateagatic, zere corpuz ciquiñeri gustoa emateagatic. Da posible nere cristabac orrela vici naiago duzutela? Cer ichutassun da zuena? Cer aicinacen duzute zeren placer eta gustoaquin baldin allegatu bear bazaizute eguna placer deninocentenac ere servitu edo izan bear badute somintasun ecin sufritu daitequen batendaco? nere cristabac ezta vician bestetaco baicican gueren pecatuei negar eguiteco, eta salvacio eterno, villaceco despreciacen ditugularic demonioaren agunzac, eta tentacioac; ceren esperoan edo cer ariceradete bada ia? nola eztirade zuen veguiec iturien merecirican ez infernubat baicican milla zuen pecatuegatic. Cer eguienen luquete condenatu miserableac, zuec bezala arrepentitu balitezque Jaun divino orren oñetara? cer eguienen cinuque zuc joanen baciñique infernuetara eta andican ateracea posible balice? O nolaco sentimentuerequin eguiñen ciñuquen negar cere pecatues. O nola aborrecituco cinuzquen munduco placere eta gustoac. O cer suspiroaquin escatuco cinuquen misericordie. Nola eztuzu bada eguiten orain? Nola ecirade arrepentiken eguiñen? Nola ecirade ilcen penas, eta sentimentus? Ea pecataria logra dezazu Jesu Cristoren piedadeac franquicen dizun ocasioau, badaquizu eta ecustendezu zure delituegatic mereci dezuna bada ezta gutiago baicican infernubat iarzaitea bada humildade ecin gueiagoco batequi aren oñetara, baldin nai balinbadezu, barcacea, orain da bada misericordieco dembora, izan bedi bada orain negar sentimentu eta arrepentimentuerena orain Santuec intercedicen edo iarcen dirade vitarteco, orainnican Aingueruen erregue cenac Marie Santisime interesacen da ez ceitecen erori infernura ea bada anima zaite eguiñen zezu papaquiac Jaungoico dena ofendituarequin atera beita suspiroac zure viocetic arrepentimentuaren señalesas.

Baño O nere Aita dulcea, O nere Jaungoico maitea nola da posible ni arrepentituraitequela zuc ez palinbadirazu laguncen? Eman dizarazu Jauna indarra negar eguiteco lagun dichazu nere vioza eta ezpañac confesaceco Cerueren eta luraren aiciñean, naiz losaz beteric atrebitu onec eguiñen zuela pecatu zure contra cein baicirade nere Jaungoicoa, zure contra cein baicirade nere Aita, zure contra ceiñ baicirade nere Creadorea nere erreguea, nere arzaia nere Redemptorea, bai nere Aita eta Jaungoicoa zure contra eguiñen nuen pecatu nere pasioneari gusto emateagatic eta infernure ioateagati, baño ay nere Jaungoico maitea, ay nere Aita misericordiosoa, ya eguiñec eztu erremedioric, damu dugu vioz gucitic. O Aingueruen Erreyna, O pecatarien ama lagungaizazu Señora peticio onetan galduet gara baldin Jaungoicoac usatu bear badu bere justicies; iduquizazu compasioa gutas, eta veguire dizaguzu Ama onac bere semeas bezala begui misericordiosoaquin, onetaraco negar eguiten degu onetaraco deicen zaitugu suspiro eta negarraquin gueren pecatues arrepentituric bada norbait escusecen edo nai eztuenic? O eztetala permititu Ceruac, animo

bada nere Cristabac, animo eta indar obligaceco Ama Maria Santisima eta bere Seme Soberano oni ez gueiago despreciatu J. Cristoren odol precioso, lenago il ece ez izuli berris ofendicera eta oraindenoñoco eguin ditun pecatues escadizogun barcacioa erraten diogularic etc.

### III

Dominica 21. Año 1839. Eguillete

Radix omnium malorum est cupiditas aut furtus. Capt. 20

Ain frequentea da personetan bere defectoac estalcea costumbrec ece, baitirudi heredatu guiñuela gueren lendabicico aitagandi pecatu originalarequin batean. Bada picardi bat dio San Agustiñec Jaungoicoac ecin barcatu dezaquena cein da ori galdeguin dizozute? Eta eranzunen dio Santuec Ipsa est defensio pecatorum, au da bere pecatuec escusacea, eta defendicea. Apenas eguiten degun pecaturen bat, baldin falta bada vioceco humildadea, berla veztiken degu virtuterem baten trajearequin, edo alo menos pintacen degu ez den bezain isusie; Emaztequi maldicienteac naidu arindu bere costumbre zartua senarra olgazan bat, ordi bat, eta iocari bat duela esatearequin, edo ordicen dela, semeas desesperacien dutela, dio maldicicen duela intencioric gabe esatearequin; Besteac guezurraren gañean eguin bazuen ere juramentue izandu cela gauza chiquieren gañean, eta iñoren dañuric gabe, seme, edo alaba altiboac escusacen dute beren pecatue aren aita eta amaren genio gaizto, eta charrarequin ecin aguantatu ditequela esatearequin, araco agravio embaten ondorean bere aideac tratatu nai ez tuenac aldamaneo lagun asarretu cenarequin tratatu nai eztuenac disimulacen du bere pecatue esatearequin, nic eztiot gaicic deseacen, Jaungoicoac neroni direla ari deseacen dioden gaiza. Desonesidadeco pecatuen erori danac esaten du ezuela arrec nai, besteac paratuzuela, ezuela consentitu: baño escusaric gaitztoenac, eta ceñetatic etorcen diraden dañuric andienac dirade Lapurreta, eta rrestitucioaren gañean ematen dituzutenac, cergatic iduricen zaizuten juicio gaizqui formatu baten medios ecela izandu injustoa, baici licitua besteren gauza arcea, gordecea, estalcea, eta ucacea, eta ezagucen duztenean injusticie, eta restitucioa eguiteco obligacio berequin decarrena paracen, eta discurricen dituzute alaco impedimentuec, ez pagaceco, restitucionc ez eguiteco, alaco moduen ece, balinbada pecaturic barcaceco dificultoso edo nequetanic, edo casi imposibleric, da lapurreta, edo besteren gauzaren deseoa, vicio ain madaricatua, alaco moduan ece baitaq vicio gucien zaña. Ez ostucea besteren gauzaric, eta ez estalcea, eta desacea manacen digu Jaungoicoac zapzigarren mandamentuen, eta amargarrenean, eta au bear bezala esplicaceco escadizogun gracie Aita Eternoari paracen degularic vitarteko Aingueruen Erreyna Ama Maria Santisima Saludacen degularic Ainguruen icequin Ave Maria.

Non furtum facies.

Arrazobe anicequin esan zuen San Tomasec ecela pecatu peligrosoagoric lapurretacoa baño, lendabicicoa cergatic eztan erraz aborrecicea acio ure, cein eztutzen ezagutunai injustotaco, antes bien iduricen zaiote licitoa eta justoa dela, bigarrena cergatic ezagucen badute ere eguin zutela, eta arquicen direla errestitucioa eguiteco obligacioarequin, eta esan eguiñen dutela, ala ere ezaiote barcacen pecatue restitucioa eguin dezaquetelaric ezpadute eguiten. Eztabada beste gauzaric lapurreta besteren gauza ocultamente jabearen borondatearen contra ebastea baicic, eta esaten da ocultamente, lapurreta, rapiñatic, edo bere beguire, eta presente dagoala ebastetic distinguiceagatic, eta onetan arquicen dirade bi

malici, baten gauzan eguiten zaion dañuerena, eta bestea personari berari eguiten zaionaren dañuarena, baño lapurreta ocultamente, edo jabeac ecusten eztuela eguitea, ezta malici bat baicic. Lapurreta, da pecatu mortala bere naturalezas Santo Tomasec dion bezala, eta ez nola naicoa, baicican errestitucioa eguiteco obligacioa berequin deramana, eta cer cantidade bear den lapurreta pecatu mortala izateco, ezta erraz determinacea, eta eztut nic ere determinatua, baño bai esanen dut ostucea amar edo amavi erreel Erregue, principe, eta beste persona aguiz abaraseri izanen dela pecatu mortala, eta cantidade chiquagoa ostucea izanen dela pecatu veniala. Beste persona bazuec badirade ongi samar vici diradenac, eta ostucea oieri lau erreel izanen dá pecatu mortala, eta gutiago izanen da veniala. Beste persona bazuec badirade beren trabajueren medios vici, eta mantencen diradenac, sastre, zapatero, jornalero, eta ostucea oberi vi erreel izanen da pecatu mortale, eta finalmente ostucea pobre bati erreel bat izanen da materi gravea eta por consiguiente pecatu mortala: eta gauzaric comunena, eta probablena, baño avertitu bear da aniz aldis cantidade chiquagocoa asqui izan daitequela pecatu mortaleraco, baldin artatic seguicen edo etorri bear bazaio perjuicio andie lagun progimoari, .... gauza chique da orraz bat eta baldin quencen bazayo sastre bati iaquinic eztuela gueyago lanean ariceco, eta vere familie alimentaceco, izanen da pecatu mortala; oro bat pluma bat balio chique du, baño quencen bazaio Escribau bati, iaquinic eztuela besteric, eta aren faltan galdu bear duela egun gucico jornala, edo irabacie, izanen liceque culpa grabea seguitucion perjuicioagatic. Asentaturic doctrina au, nai ditut paratu zuen beguien aurrean erregla generalac zuec descubritu dichazuten aietatic (bazuec) aniz vide disimulatu, eta oculto besteren interesetan cebaceco diradenac, prevenicen dizuterelaric, ece esaten dudenean ebasten dena dela pecatu mortala, entenditu bear dela ebasten dion cantidadea gravea delaric, lau edo sei errealen lapurreta asquiden edo ez decidicera sartu gabe. Lendabicico regla generala edocein genero nai duen especitacoa izandadiela, edocein genero salcen edo erosten dena, saldu bear da dena den bezala, alaco moduen ece manifestatu bear zaio erostunari precisamente tacha,edo vicio oculto edo estalien dagoana, ala dio Santo Tomasec. Erregla onen contra eguiten dute pecatu mortala, eta restitucioa eguiteco obligacioarequin aniz oficialec, nola baitirade zapatero, zurguin, eta beste asco veren obra viciotua eta gaizqui trabajatua, edo calidad de gaiztocoa salcen dutenac, ona balice bezala, edo ongi trabajaturic balego bezala.

Ygualmente eguiten dute pecatu mortala mandamentu onen contra azuquere fiñe, eta beste onelaco mercaduri edo ona, gaiztoarequin nasita, gucie onabalice bezala precio goinecoan salcen dutenec: orobat eguiten dute pecatu mortala idiec, mandoa, edo beste edocein acienda tacha ocultoarequin salcen dutenac, eta au precio justoan baño gueiagoan salcen ezpaduere baldin etorri bear bazaio perjuiciorenbat erosten duenari, edo galdecen badu tachas oculto, edo estalias bada conciencien manifestatu bear zaio ala dio Santo Tomasec eta oro bat eguiten dute pecatu mortala ardoari, olíoari, aguardiente, eta beste onelaco generoari ura emanda salcen ditutenac, alacoric ezpalu bezala, eta batere artas errelajatu gabe: oro bat eguiten dute pecatu mortala mostraraco genero bat ateracen eta eracusten dutenac, eta emateco demboran charragocoa, encajacen diotenac, igualmente eguiten dute pecatu mortala moneda, edo diru falsoa duela yaquinic onetaco pasacen dutenac, eta eztu balio estatea ari ere eman ciotela, bada zu engañature izatea ezta motivoa, zuc bestea engañacecoa ezta arrazobea arrec gaizqui egui zuelaco, zuc ere gaizqui obraceco, eta aren pasoac seguiceco. Bigarren erregla generala eguiten du pecatu mortala besteren hacienda, frutu, ianari edo ondasunetic pisquecan ostuceco intencioa arcen duenac, eta dago obligaturic ebasi zuenaren restitucioa eguitera, cantidade gravera allegacen denean. Baño obequi entendiceco iaquinezazute lapurreta chiquien egui ... persona batec beste bati, por exemplo mutil edo nescato bere nagusiari egun marabidibat, biar beste bat, eci bida ostucen ditionac bezala, edo egui daquicola personabaten gandic, anici, por ejemplo araquin, botiguero, edo tabernari pisu chiqui edo falso, edo neurri escasarequin allegacen

den gucieri salcen dienac bezala, edo eguin ditezque lapurreta chiqui ebec aniz personagandic batengana, por ejemplo anicec elcar arturic, edo bacoicec beren guisa ardance, alor, edo frutotan lapurreta, eguiten dutenean. Au onela delaric da doctrina eta regla seguroa, ece ostucen duenean batec aniz aldis gauza chiqui bat, baldin aietaco bacoicean balin bazuen intencioa gauza grabea ostucecoa, eguiten duela pecatu mortala lapurreta chiqui, edo leve bacoicean, bada ala eracusten du espresamente San (Agustiñec) Antonino florencianoc, cergicat aren intencioan, bazuen borondatea lagun projimoari dañu grabea eguitecoa. Bigarrena esatera noaiena da, ece arau anitz cantidade chiqui batec, beste bati ostucen ditionean, nola mutil, edo nescame bere nagusi, edo echeco andrareari bi maravedi, edo lau egunoro ostucen ditionac, baldinbacen onen intencioa allegacea materi grava, lendabicico lapurretan eguin zuen pecatu mortala, eta ala ematen du adicera Santo Tomasec, bada arrec bere vorondatean artu zuen lagun progimoari dañu grabea eguiteco, baño baldin lapurreta chiquiaiec eguin bacituen materi, edo cantidade grava allegaceco intencioric gabe eztu eguienen pecatu (mortala) veniala baicic lendabicico lapurretan, eta ala egonen da obligaturic restitucioa eguitera, pecatu venialaren azpien, eta azqueneco lapurreta levea completacen duenean materi gravec eguiten du pecatu mortala, bada au beres levea, edo chiquia izanagatic, unituric besteaquin, allegatucen materi grabera eta argatic dago obligaturic restitucioa eguitera pecatu mortalaren azpien, ala declaratu zuen Ynocencio amicagarrenac. Yrugarrena esan bear dudena da ece ostucen duenean batec anici, eta bacoiceri cantidade chiquie, baño cantidade chiqui ebec juntoan cantidade larrie eguiten dutenean, oliao, ardoa eta araguie pisu chiqui, edo lecari escasarequin salcen ditutenac bezala, eguiten dute pecatu mortala, eta dago obligaturic restitucioa eguitera, bada bacoiceri dañu chiquie eguiten badio ere da dañu gravea erri, edo cominidadeari eguiten diona. Laugarrena esan bear dudena da, ece anicec elcar arturic cunce batera belar ostucera, edo alor batera patata, maice, eda baba, edoedocein grano genero ostucera joaten diradenean, baño errepartituric bacoiceri materi levea tocacen zaionean, ala ere eguiten du aietaco bacoicec pecatu mortala, eta dago obligaturic bacoice beres dañu gucieren errestitucioa eguitera, baldin ezpalin badute nai eguin besteari. Baño ezpalibacen unitu lapurretaraco baicican bacoicec beres ostu bazuen materi levea, besteari yaquin gabe, ezuen eguin iñorquere pecatu mortala, cergicat ecen izandu lagun projimoari dañu gravea eguiteco intencioric, baño cembañ ote dirade elcar arturic, edo naiz mancomunean ez ioanic ere, cembañ ote dirade ioaten diradenac ya belar ostucera, ya maice, edo patata batera erreparoric gabe, eta ioan confesacera eta galdeturic confesoreagandic ea deus ostuduen serenidade andierequin errespondicen dutenac? Eta ez ote dirade ez frute oriec ebastera, dela sagr, udare, adan, eta particularmente gaztañetara, batere erreparoric gabe, eta gauza andibat Jaungoicoaren aurreraco eguiten balute bezala?. Asi daquiaiela iñor reprendicen, berla iequicen dirade odayec baño gorago, viciric irichi bear balute bezala, esaten dutelaric bazuetan Jaungoicoac gucienzat ematen duela, ezpalice munduen onelaco, edo alaco, edo errionetaco, edo besteco beciñoac baño nobleagoric goseac illbearrac lirequela, pobrea errematacera tiracen dutela. Ona errespuestac, ona quejac, baño permititu dizarazutela onelaco oriec galdeoduac eguitea. Esan dizarazu eztuzu zuc cerbait gauza acaso beste bazuec eztutena? eta baldin ostuko baliquezute zuri norpaitec ecinique queiatuco? Oranic gueiago ecinucen dotatu, edo erregalatu Jaungoicoac abilidades? dela segaracoas, dela layeracoas, dela iteracoas, jostecoas? Bai Jauna esanen dirazu. Eta baldin deituco baciñuzque peon egun bateco, edo bitaco alorrera, eunceaco eta gaztañediac dituen batec esanen baliquezu baia Jaungoicoac gucienzat ematen du, edo egungo eguna debalde pasatu bear duzu, cer eranzunen ciñico? Ezaudela zu debalde trabajaceco journaletic mantencen ceradela, eta mantecen, eta veztiken duyula zu eta familie, artatisic pagacen duyula eche tregutuec, eta gañeraco paga bearrac. Conque Jaungoicoac eztu guerostican ematen gucienzat, eta ala nola Jaungoicoac eman zizun zuri abillidadeori ecion bear bada besteari

eman, eta aren lecuan eman cition alorrac, eunceac, eta gaztadiee ceñen posesioan dagoan, eta cein bear dituen jornaleroac pagaceco bere burue, eta familie, seme eta nirabeac alimentaceco, bezticeco, eta soldata pagaceco, eta gañeraco pagabearrari, cein botacen diraden ondasunan conforme, satisfacio emateco, conque iz batean uci bestera dagoana dagoen toquien. Ay Jaune esanen du besteren batec nic eznuen pisco bat besteric ostu, zuc piscabat, besteac beste piscabat, besteac beste piscabat, eta onela guertacen da aniz aldies, gueldicea jabea eramatzen dutenaren erdie, laurdena, edo quartoa gabe, perjudicaturic gravemente, eta egun esquerostic dañau amancomunturic, edo naiz bacoicec beres, baño iaquinic arrec bezala beste ascoc ere ostucen diotela, eguiten dute maiz arrec ostuzuen gauza levea, edo chique izan pecatu mortal, eta por consiguiente egonen da obligaturic restitucioa eguitera pecatu mortalaren azpien opinio aquin probablean. Eta doctrina onetatic ezagun da claramente nola pasatu eguiten duten nirabe ya guisa batean, ya bestean beren nagusi, edo echecoandareari sisacen diotenean, pisqueca, pisqueca lagun projimoaren ondasunetik arcen dutenac neurri escas, eta pisu chiquiequin, eta falsoquin ostucen dutenac, ure ardoarequin, aguardintarequin, eta guisa onelako gauzaquin nasten dutenac. Baño materi onetan ez useguiteco, seguroa da confesacea claridadearequin, bada modu onetan ecusico du confesoreac esamiñaturic circunstancie noiz den pecatu mortal, eta noiz veniala. Solamente advertitu bear dut aniz niraberden desengañoraco, eztiradela guti baicican aniz asentues pecatu mortalean vici diradenac, cergatic beren alde ateracen dituten ceinbait conturequin, doaci pisqueca pisqueca bere nagusien gaucetatic, ya dela garitic, babatic, maicetic, oliotic, ardotic, eta iz batean ian gauce gucietatic, sisatues bazuetan gala, eta pompetaraco eta beste bazuetan bere aide pobrec ac socorriceco. Nic esaten dut mutil, edo nescameac, nic aniz trabajacen dut, fiela naiz, eztut lorianc ere eguiten echeco gauza, eta ondasunac aumentaceco deseorequin, eztit pagacen nagusic nere abilidade eta trabajuec mereci duena, bada nic ere artu, eta eraman dizoquet soldata baño gueisago cerbait. Diot bada, vici eta daudela pecatu mortalean onela obracen dutenac, eta obligaturic restitucioa eguitera, eta confesoreac absolvitur ezdichequen moduen ezpadirade emendacen, eta nirabeas esan duden bezala, guisa berean esaten diot echeco seme, eta alabas, oc cerbait quencen badiote beren gurasoari, eta particularmente gauce grabea escatuta ere emanen ezlioquetena, eguiten dute pecatu mortal, Espiritu Santuec eracusten duen bezala, eta anices gueiago eguiñen dute pecatu mortal, baldin ostucen dutena gastacen badute malamente iocuen, ardotan, desonestidade, eta gañeraco gaucetan, eta daude obligaturic restitucioa eguitera, eta ezpalinbadute cerequin, abonatu bear diote beren anaiai ondasunen errepartoa eguiten denean perjudicatu cioten ura.

Orobat esaten dut emazteas, beren senarraquin bada gauza claroa da, eta costantea senarran vorondatean contra eztezaquetela ondasun administracio, usufruto, eta dominio correspondicen zaien aietatic, eta andre ondasun ebetatic cantidade gravea bere senarrari guencen dionac eguiten du pecatu mortal, eta anices andiago baldin gastacen baditu bere senarraren borondatearen contra vanidade ordiquer tripezaiqueri eta eraquerietan; baño eztu pecaturic eguiñen arcen balin badu bere familieco sustentu decentean empleaceco. Yrugaren erregla generala: Edocein persona advertencierequin injustamente dañu graveremba causacen dionac, eguiten du pecatu mortal eta dago obligaturic restitucioara. Erregla onen contra eguiten dute pecatu mortal lendabicicoa araco lagun projimoa injustamente perjudicatu ondoan, ya pasiones, ya embidies, edo venganzas, ya vere vicien, honran osasuna, eta haciendan, edo ondasunetan, ez solamente satisfacioa veat dena ematen ez tutenac, baicican gastarazten diotenac pleitu, eta diligencietan, justificaceco, edo vere drechoa probaceco, eta por consiguiente guelditu libre causatu, edo egun cion perjuicioa pagatu gabe.

Bigarrena eguiten dute pecatu mortala araco persona ezaguturic onelaco eche, alor, ondasun eta alaja eztela arena, edo fulanoc duela derecho guciago eta obea, alaere ucacen diotenac, cergatic ecin probatu duen testigu eta instrumentuequin, edo cergatic izanican bestea pobre bat, ecin seguitu dezaquen pleituri, eta ala eguiten dute contentue friolera batequin. O cembañ onelaco arquicen den munduen, eta desdichatu oc daude beti pecatu mortalean veren animac infernuelara botaric. Yrugarrena eguiten dute pecatu mortala nausia beren nirabequin, gornalero, eta oficielequin tratatu zutena, faltacen diena aieri veren izardi eta salarioan pagamenta. O cembañ eta arquicen dirade cuidadu andia arcen dutenac beren haciendari ianari, eta sustentoa ez faltaceas eta eztute casoric eguiten jornalero, nirabe, eta oficielean izardi desdichatu Ceruraño clamacen duenas. O cembañ aldis gueldicen diraden miserable aiec beren irabacie cobratu gabe, eta cobratu badute ere noizpait, eta orduen ere esquergaiztoan eta echean duen gauzaric gaiztonetic, eta garesti, O nola clamacen duen diot verrisere aien izardi tristeac, dio Santiago Apostoluec, escacen duelaric venganza Jaungoicoaren tribunalean. Laugarrena, eguiten dute pecatu mortala administradore, tutore eta heredero beren trampac estalceagatic, beren zorrac pagaceagatic, edo tripari emategatic, edo alperqueriegatic zorrac pagatunai eztutenac, contuec ajustatu nai eztutenas, arceco dutenan perjuicio grabearequin. Orobak diot difuntuec ucizutzen manda, limosna, eta mezac bereala ateraceco aietas. Seigarrena eguiten dute pecatu mortala, alorretaco, euncetaco, eta oianetaco iguraiec, ceñec ecusiric dañu eguiten dutela, eztute eguiten casoric, adisquidea delacos, convidacen duelacos, eta escuec noicean noiz berocen tiolacos. Zazpigarrena eguiten dute pecatu mortala Erregueren Ministroac, beste Erreinu edo provincietic eldudiraden generoac tocacen zaioten drechoa pagarazteco, contrabandoac debecaceco, eta arrapaceco paraturic daudenac, eta ecusiric edo iaquiñic onelaco, edo alaco fulanoc erabilcen duela contrabandoa, veguiec ichucen ditutenac, ura icusita beste aldera ioaten diradenac, eta polsa ederqui betecen dutenac, ebek pecatu mortala eguiten dutenas landara daude obligaturic errestitucioa egitera Erreguean genero aieri correspondicen zaiena. Laugarren erregla generala arceco besteren gauza jabearen vorondatearen contra dauqueten aiec gucieg eguiten dute pecatu mortala, eta dago obligaturic errestitucioa egitera gauza ostua ez pada ere. Por ejemplo eman cion batec besteari diru cantidade bat urtebat garrenean izulceco condicioarequin cumplitucenda dembora, eta alaere zezaqueclaric, eta zuelaric, eztu pagacen zorduena, reclamacen du jabeac, eta besteari eztio casoric eguiten, eguitentu diligencieberrisere eta escusa bazuequin despedicen du, arabada gauza ostugabea, baño iduquicearequin, pecatu mortala eguiten dena, eta besteari etorri cequizquion dañuen restitucioa egitera obligaturic dagoana. Onetatic contue atera daiteque, ece iduquiegetic pagaceco deseoa, eta errestitucioa eguiteco intencioa, emanagatic mille aldis izan confesoreari eguiñen duyula, dezaquezularic ezkapeazu eguiten gaizqui confesacen cerade, eta arquicen cerade continuoco pecatu mortalean. Jauna obra gaiztoa eguiten zait pagacean, edo restitucioa eguitean? O aicequi infernucoac, eta cembañ anima dauqazu calabozo infernal orietan. Yaquiñezazu bada ece zuc ostuziñuena, edo zor duyuna balinbadago especi berean, edo igualean ceñequin aumentatucinuen zure hacienda, edo ceñequin aborratuciñuen beste gasturen bazuec, bereala eguiñ bear duyula errestitucioa, cergatic ezaizun eldu batere dañuric besteren gauzaren restitucioa eguitetic. Yaquiñezazu baiere noneta pagacetic, edo zor diozuna izulcetic ez pazaizu seguicen dañu anices andiagoa zu arceco zaituenari esperaceas baño, zaude obligaturic pagacera, trabaju eta incomodua aniz artatic etorri bear bazaizuere, nola baita alasem bazuec enpeñatu bearra, edo gastues gutitu bearra, eta da arrazobea cergatic incomodidaberembañ padecicecotan, lenago padecitu bear dezu zuc, zu arceco zaituenac baño. Jauna eta ostucenaren cantidadea eman daiteque limosna edo mecatan? Ez nere Cristaba ez, jabeari eguiñ bear zaio restitucioa, edo aren herederoari, naiz urrutti egon, eguiten diradelaric diligenci posibleac non dagoan iaquiteco, eta eguiñ restitucioa zor zaionarena. Besteren gauza iduquiceco

nombreoneta comprehendicen dirade alaja,edo gauza arquituac, eguiie da eztela ostue, baño bai besterena, eta eztaiteque iduqui. Azqueneco besteren gauza injustamente iduquiceco nombre oneta comprehendicen dirade Amarren primiciac Eliza ama Santac manacen duen bezala pagacen ezditutenac, beste asco ecin contatu alaco modu lagun projimoari dañu, eta perjuicio eguiteco direnan artean procura beza bacoicec conciencie ongui esaminatu ondoan iñori eguin badio dañuric edo calteric pagacea, modu oneta erdeisteco eternidadeco glorie ala guerta dedille Amen.